

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

KONTROL MOZIOA

Bidebietan kultur etxea sortzeko azterketari buruzkoa

EH Bildu udal taldeko zinegotzi Zigor Etxeburua Urbizuk, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua hartuta, mozio hau aurkeztu du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2021eko urriaren 18an Pertsonentzako Zerbitzuen batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Bidebieta auzoan ez dago kultur etxerik, eta horrelako ekipamendurik ez duen Donostiako auzo jendetsuena da. Auzotarrek gertuen dituzten kultur etxeak Kasares (2 km), Larratxo (1,5 km) edota Larrotxene (1 km) dira. Jakina, kultur etxea auzoan bertan izatea bidebietarren eskari historikoa da.

2021eko aurrekontuen eztabaidan, EH Bilduk zuzenketa bat aurkeztu zuen Bidebietako Moneda baserrian kultur etxe bat moldatzeko, Kutxa Fundazioarekin hitzarmen bat eginda; duela 25 urte, alfabetatze ikastaroak, edota sexualitateari, yogari eta kultura aktiboari buruzkoak eskaini izan zituen Kutxaren Familia eta Gizarte Heziketa sailak. Tamalez, Udal Gobernuak ez zuen onartu proposamena.

Ekialdeko Barrutiaren 2020ko aurrekontuetan ere bi proposamen egin ziren Bidebieta auzoan kultur etxea sortzeko, bat EH Bilduk aurkeztua eta bestea Herripe elkarteak, baina Udal Gobernuak, Covid 19ak eraginda, aurrekontua bertan behera utzi zuenez, ez ziren garatu. 2021eko aurrekontuetan, Barrutiko Udal batzordeak txertatu egin zuen Herripe elkartearen proposamena, Bidebieta auzoan kultur etxea sortzeko aukera azter dadin. Garai berean, Bidebietako Auzo Sarean biltzen diren bizilagunek ekimen bat abiatu dute Bidebietako kultur etxearen alde.

Maiatzean, Udalbatzak EH Bilduren mozio bat onartu zuen eskatzeko Udal Gobernuari abiatu dezala azterketa bat, aurten bertan, Bidebietan kultur etxe bat sortzeko aukerak zehazteko eta beharko diren baliabideen aurreikuspenak egiteko, eta txostena izatean, horren berri eman diezaiela udal taldeei. Era berean, Udalbatzak eskatu zion Udal Gobernuari antolatzeke parte hartzeko prozesu bat Bidebietako auzotarrei zuzendua, kultur arloan auzotarrek dituzten kezkei eta beharrei erantzuteko.

Udal Gobernuak gaia Donostia Kulturako administrazio kontseiluan aztertzeke prest azaldu zen. Ekainean, EH Bilduk galdetu egin zuen Donostia Kulturako administrazio kontseiluan Bidebietako kultur etxea sortzeko azterketari buruz. Zuzendaritzak erantzun zuen lan konplexua zela eta denbora beharko zutela prestatzeko. Irailean, berriz ere galdetu genuen administrazio kontseiluan emandako urratsen inguruan; "ari zirela" besterik ez zuen adierazi zuzendaritzak.

Horregatik, urriko batzordean galdetu egin genion zinegotzi ordezkariari azterketa amaitu ote duten eta parte hartzeko prozesua egiteko asmorik ote duten. Zinegotziak erantzun zuen Donostia Kultura erakundeko Kultur Ekintzako zuzendari Jon Aizpurua ari dela txostena prestatzen, eta urte amaitu baino lehen izango duela prest. Gainera, adierazi zuen auzoko zenbait elkarterekin elkarriketak egiteko asmoa duela, baina ez zuen zehaztu zeintzuekin.

EH Bilduri, ordea, nahitaezkoa iruditzen zaio, elkarriketa solte batzuetatik harago, parte hartzeko prozesu oso bat egitea bidebietarrekin batera, kultur azpiegitura horren kokapena eta eskainiko duen zerbitzuaren nolakoa auzotarrekin batera aztertzeke, eta, oro har, kultur arloan auzotarrek dituzten

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

kezken eta beharren inguruan galdetzeko. Areago, ikusirik 2022ko aurrekontuak prestatzeko urratsak abiatzeaz direla, EH Bilduren ustez, Udal Gobernuak lehenbailehen antolatu beharko luke gogoeta hori 2022ko aurrekontuan jada jaso ahal izateko diru sail bat, bidebietarren eskari historikoari erantzuteko bidean. Zinegotziak, ordea, adierazi zuen Udal Gobernuak ez duela diru sailik aurreikusi horretarako 2022ko aurrekontuaren zirriborroan.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari antola dezala parte hartzeko prozesu oso bat bidebietarrekin, Kultur Etxearen kokapena eta eskainiko duen zerbitzuaren nolakoa auzotarrekin batera aztertzeko, eta, oro har, kultur arloan auzotarrek dituzten kezken eta beharren inguruan galdetzeko.
2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari aurreikus dezala diru sail bat 2022ko aurrekontuaren egitasmoan, urrats esanguratsuak egin ahal izateko, 2022an bertan, bidebietarren eskari historikoari erantzuteko bidean.

Donostia, 2021eko urriaren 21ean

Zigor Etxeburua Urbizu
EH Bildu udal taldeko zinegotzia